



**DONOSTIAKO TXARA I ERAIKINA BERRITZEKO PROIEKTUAK ETA BESTELAKO AZTERKETA
TEKNIKO OSAGARRIAK IDAZTEKO ETA LANEN ZUZENDARITZA AURRERA ERAMATEKO
ZERBITZUAK PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-BALDINTZEN AGIRIAN
JASOTZEKO PROPOSAMENAK**

1. KONTRATUAREN XEDEA:

Honako dokumentu tekniko hauek idaztea da kontratuaren xedea:

1.1.- Proiektuak idazteko etapa:

- Aurretiatzko azterketak (Aurreproiektua / Plan berezia):
- Oinarrizko proiektua
- Jarduera Proiektua (edo dagokion dokumentazio teknikoa)
- Gauzatze Proiektua (instalazioen garapena barne)
- Gauzatze Proiektuaren azterketa tekniko osagarriak:
 - Segurtasun eta Osasun Azterketa
 - Kalitate Kontroleko Plana
 - Eraikuntza eta Eraispén Hondakinak Kudeatzeko Azterketa

1.2.- Eraikuntza-lanen zuzendaritza fakultatiboaren etapa (*):

- Obra-zuzendaritza (arkitektoa)
- Gauzatze-lanen zuzendaritza:
 - eraikuntza-lanena (arkitekto teknikoa)
 - instalazioena (ingeniaria/ingeniari teknikoa)
- Segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa (arkitekto teknikoa/arkitektoa, bi kasuetan TSPRL edo Lan Arriskuen Prebentzioko Goi-teknikaria)
- Obra amaierako dokumentazioaren idazketa:
 - Eraikinaren Liburua
 - Kalitate Kontroleko Liburua
 - Eraikinaren erabilerarako baimen teknikoak eta administrazio-baimenak lortzeko dokumentazioa:
 - 1. Erabilerako Lizentzia
 - Jarduera Irekieraren Lizentzia
 - Bestelako baimen teknikoak eta administrazio-baimenak

(*):Eraikuntza-lanen kontratazio efektiboak baldintzatua.

2. KONTRATUAREN PREZIOA ETA FAKTURAZIOA:

Zerbitzuek 770.000,00 €-ko kostua izango dute gehienez. Kopuru horri BEZa gehituta, guztira **931.700,00 €** (bederatzehun eta hogeita hamaika mila zazpiehun euro).

Esleipendunak eskainitako ordainsarien zenbatekoa finkoa izango da, eta ezingo da aldatu proiektuaren aurrekontu-gorabeherak, lanen lizitazioan izan daitezkeen bajak, lanen likidazioa, lanen iraupen erreala edo lanen berme-epe efektiboa direla eta.

Honela banakatu beharko da fakturazioa:

%22: Aurretiatzko Azterketak (Aurreproiektua / Plan Berezia) + Oinarrizko Proiektua + Jarduera Proiektua

%22: Gauzatze Proiektua eta azterketa tekniko osagarriak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

%44: Lanen zuzendaritza fakultatiboa: Lanen zuzendaritza (arkitektoa); lanak gauzatzeko zuzendaritza (arkitekto tekniko) eta instalazioak gauzatzeko zuzendaritza (ingeniaría edo ingeniari tekniko), eta segurtasun- eta osasun-koordinazioa. Hiru hilabeteka fakturaztea onartzen da.

%1: Amaierako Egiaztapena

%9: Lanen amaierako dokumentazioa (*as built* planoak, Eraikinaren Liburua, etab.), eraikinaren erabilerarako beharrezkoak diren administrazio-baimenak (Lehenengo Erabilerako Lizentzia, Jardueraren Irekiera Lizentzia, etab.) eta instalazioak erabiltzeko beharrezkoak direnak (elektrizitatea, klimatizazioa, suteak, gasa, igogailuak, etab.).

%2: Lanen kontratuaren berme-epean beharrezkoak diren konponketen kontrola, segimendua eta, beharrezkoa bada, zuzendaritza fakultatiboa (lanen zuzendaritza, lanak gauzatzeko zuzendaritza, segurtasun- eta osasun-koordinazioa, etab.), kontratua likidatu arte. Epe hori amaitzean, eraikinaren egoerari buruzko Amaierako Txostena egin beharko da.

Muga horiek kontuan izanik, betetako faseei edo egindako lanen kontzeptuei dagozkien kobrantza partzialen arabera ere banakatu ahal izango da fakturazioa.

Ez dira onartuko baldintza-agiri honetan adierazitako lanen zati bat bakarrik jasotzen duten eskaintzak.

3. BALDINTZAK (LIZITATZAILEAREN KAUDIMEN TEKNIKOA):

3.1.- Titulazio akademikoa edo profesionala:

Kontratatutako arkitektura-zerbitzuak, gutxienez, **arkitekto** batez eta **ingeniarí edo ingeniari tekniko** batez –instalazioetan espezialista den ingeniari tekniko batez (termikoak, elektrikoak, suteak, etab.)– osatua egon behar du, eta behar adinako esperientzia izan behar du antzeko berrikuntza-lanetan eta instalazioetan.

Arkitektoak idatzi beharko ditu Aurretiatzko Azterketak (Aurreproiektua / Plan Berezia), Oinarrizko Proiektua, Gauzatze Proiektua, eta ingeniaria edo ingeniari tekniko arduratuko da instalazioak garatu, kalkulatu eta definitzeaz, zeintzuk, bestalde, ezin hobe integratu beharko baitira proiektatutako eraikinetan.

Aurkeztu beharreko gainerako dokumentu teknikoak edo proiektuak eta proiektu-faseko segurtasun- eta osasun-koordinatzailearen lanak aipaturiko teknikarietako batek egin ahal izango ditu edo talde lizitatzailerako beste teknikari batzuek, baldin eta dagokien arloan behar adinako gaitasunak badituzte.

Eraikuntza-lanen zuzendaritza fakultatiboaren fasean, talde tekniko osatuko dute –arkitektoaz (lanen zuzendaria) eta ingeniari teknikoaz /ingeniariaz (instalazioak gauzatzeko zuzendaria) gainera– **arkitekto tekniko** batek (eraikuntza-lanak gauzatzeko zuzendaria) eta **segurtasun- eta osasun-koordinazioko** arduradun batek, zeinak beste arkitekto tekniko bat edo beste arkitekto bat izan beharko baitu. Bi kasuetan, eraikuntza-arloko Laneko Arriskuen Prebentziorako Goi-teknikaria izan behar du.

Lanen Zuzendaritza Fakultatiboko fasean, teknikarien gutxieneko lanaldia asteko 20 ordukoa izango da, eta honako maiztasun honekin bisitatu beharko dituzte lanak: arkitektoak (lanen zuzendaria) astean egun batez; arkitekto teknikoak (eraikuntza-lanak gauzatzeko zuzendaria), ingeniari teknikoak/ingeniaríak (instalazioak gauzatzeko zuzendaria) eta segurtasun- eta osasun-koordinatzaileak astean bi egunez.

Arkitektoa izango da talde teknikoaren zuzendaria, zeina, taldearen arduraduna izateaz gainera, parte hartzen duten teknikarien arteko koordinazioaz arduratuko baita.

Halaber, esleipendunaren eta Mugikortasun eta Lurralde Antolamenduko Departamentuko Arkitektura Zerbitzuaren arteko koordinazioaz eta harreman zuzenaz arduratuko da kontratatutako talde teknikoaren zuzendaria. Taldearen bulego teknikoaren eta azpiegitura profesionalaren kokapenak bermatu behar du kontratuak xede dituen lanak maiztasunez eta azkartasunez beteko direla, bereziki, lanen zuzendaritza fakultatiboaren etapan.



Hona hemen talde teknikoko kide bakoitzak gutxienez bete beharreko funtzioak laburtuta:

Fasea	Arkitektoa	Ingeniaria / Ingeniari teknikoa	Arkitekto teknikoa	Arkitekto teknikoa / Arkitektoa (bi kasuetan, Laneko Arriskuen Prebentziorako Goi-teknikaria)
Proiektua	-Proiektuaren idazketa -Taldearen zuzendaritza	-Instalazioen garapena	---	---
Lanen zuzendaritza	-Lanen zuzendaritza -Taldearen zuzendaritza	-Instalazioak gauzatzeko zuzendaritza	-Lanak gauzatzeko zuzendaritza	Segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa

Aipaturiko titulazioak egiaztatu ahal izateko, kontratuaren zati bakoitza aurrera eramateaz arduratuko diren langileen **elkargokide-ziurtagiriak** aurkeztu beharko dira.

3.2.- Esperientzia profesionala:

Puntu honetan adierazitako baldintzak egiaztatu ahal izateko, **F1 FITXAn** adierazitako eredia sinatu beharko du sustatzaileak.

Ondorengo ataletan esperientzia profesionalari buruz adierazitako baldintza guztiak bete beharko ditu lizitatzailleak:

3.2.1. Arkitektoa:

Ekipamendu publiko edo pribatuko eraikin bat berritzeko proiektua egin izana ziurtatu behar du arkitektoak. Proiektu horren gauzatze materialaren aurrekontuak 6.000.000 € edo gehiagokoa izan behar du, eta proposamenak aurkezteko epea amaitu baino lehenagoko hamabost urteetan onartua edo ikus-onetsia izan behar du. Berrikuntza-lan horiek proiektu horretan oinarrituta egindakoak izan behar dute eta arkitektoak berak zuzendutakoak.

3.2.2. Ingeniaria/ingeniari teknikoa:

Instalazioei buruzko kontratu-zatiaz arduratzen den ingeniariak/ingeniari teknikoak, berriz, ziurtatu behar du ekipamendu publiko edo pribatuko eraikin bat berritzeko instalazioak garatzeko eta kalkulatzeko proiektu bat idatzi izana. Proiektu horren gauzatze materialaren aurrekontuak 6.000.000 € edo gehiagokoa izan behar du, eta proposamenak aurkezteko epea amaitu baino lehenagoko hamabost urteetan onartua edo ikus-onetsia izan behar du. Eraikin horretako instalazioek dokumentu tekniko horien arabera gauzatutakoak izan behar dute, eta, halaber, ziurtatu behar da ingeniari edo ingeniari tekniko hori izan dela instalazio horiek gauzatzeko zuzendaritzaren arduraduna.

Instalazio guztiak (klimatizazioa, elektrizitatea, iturgintza, etab.) ingeniari bakarraren ardurapean egotea proposatzen bada, ingeniari hori adierazitako eraikineko instalazio GUZTIEN arduraduna izan dela egiaztatu beharko da. Instalazioetako arduradunak espezialitateka banatzea proposatuz gero, espezialitate bakoitzeko arduradunak bere kontura ziurtatu beharko du aurreko paragrafoan adierazitako baldintza betetzen duela.

3.2.3. Arkitekto teknikoa:



Lanak gauzatzeko zuzendaritzaz arduratzen den arkitekto teknikoak ziurtatu behar du funtzio hori bete zuela ekipamendu publiko edo pribatuko eraikin bat berritzeko lanetan. Proiektu horren gauzatze materialaren aurrekontuak 6.000.000 € edo gehiagokoa izan behar du, eta proposamenak aurkezteko epea amaitu baino lehenagoko hamabost urteetan onartua edo ikus-onetsia izan behar du.

3.2.4. Arkitektoa tekniko/arkitektoa (osasun- eta segurtasun-koordinatzailea, Laneko Arriskuen Prebentziorako Goi-teknikaria):

Lanak gauzatzen diren bitartean segurtasun- eta osasun-koordinazioaz arduratzen den arkitektoak edo arkitekto teknikoak ziurtatu behar du funtzio hori bete zuela ekipamendu publiko edo pribatuko eraikin bat berritzeko lanetan. Proiektu horren gauzatze materialaren aurrekontuak 6.000.000 € edo gehiagokoa izan behar du, eta proposamenak aurkezteko epea amaitu baino lehenagoko hamabost urteetan onartua edo ikus-onetsia izan behar du.

Eskatutako lau teknikariez gainera taldean **beste teknikari** batzuk baldin badaude –beste funtzio batzuk betetzen dituztenak (Segurtasun eta Osasun Azterketa idaztea; Kalitate Kontroleko Plana idaztea; Hondakinak Kudeatzeko Azterketa idaztea; Jarduera Proiektua idaztea, etab.), lizitatuak bere borondatez ziurtatu ahal izango du horien esperientzia profesionala, F1 fitxa eskatutako lau teknikarien fitxetatik bereizita betez.

Proposamen honetako **I. ERANSKINEAN** jasotzen den funtzioak esleitzeko koadroa bete beharko da. Hor zehaztu beharko dira kontratuan definitutako funtzio bakoitza beteko duten profesionalak. **II. ERANSKINEAN**, berriz, I. eranskinean adierazitako profesionalak lanetan parte hartzeko konpromiso personalak jasotzen dira.

Dokumentazio hori aurkeztu ezean, prozeduratik kanpo geratuko da proposamena.

Esleipen-koadroan adierazitako edozein pertsona aldatuz gero, beharrezkoa izango da Gipuzkoako Foru Aldundiko Arkitektura Zerbitzuaren idatzizko baimena.

4.- ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK:

4.1.-PROPOSAMEN EKONOMIKOA:	49 PUNTU
------------------------------------	-----------------

Onartutako proposamenen eskaintza ekonomikoak interpolazio lineal bidez kalkulatu dira, honako puntu hauek definitutako zuzenen arabera eta puntu horiek mugatutako segmentuen barruan:

Gehienezko baja (BMAX)	Irekieraren gehienezko puntuazioa (PMAxap)
Gehienezko bajaren eta batezbesteko bajaren arteko distantziakidea (BMED+0,5x(BMAX-BMED))	PMAxap x (100-0,05 x BMED)/100
Batezbesteko baja (BMED)	P(BMED+0,5x(BMAX-BMED)) x (100-0,1 x BMED)/100
% 50 Batezbesteko baja (0,50x BMED)	PBMED x (100-BMED)/100
Baja = 0 (lizitazio mota)	Puntuazio nulua

Formula horiek aplikatzeko, baja (B) gisa ulertzen da lizitazioaren oinarriko aurrekontuaren eta eskaintza ekonomikoaren arteko diferentzia, lizitazioaren oinarriko aurrekontuarekin zatituta, eta ehuneko bidez adierazia.

P(BMED+0,5x(BMAX-BMED)) da gehienezko bajaren eta batezbesteko bajaren arteko baja distantziakidearen puntuazioa, PBMED da batezbesteko bajaren puntuazioa.

PMAxap da irekierarekin lotutako gehienezko puntuazioa. PMAx da bere gehienezko balioa, eta BMED eta BMAXen arabera kalkulatu da, modu honetan:

Ehunekoetan adierazitako gehienezko bajari ehunekoetan adierazitako batezbesteko baja kendu, eta emaitza % 5 edo txikiagoa bada (BMAX-BMED ≤5):



$$PMAx_{ap} = PMAx_x(BMAX - BMED) / 5$$

Ehunekoetan adierazitako gehienezko bajari ehunekoetan adierazitako batezbesteko baja kendu, eta emaitza % 5 baino handiagoa bada ($BMAX - BMED > 5$):

$$PMAx_{ap} = PMAx$$

Eskaintzaren alderdi ekonomikoen amaierako balorazioa bigarren dezimalarekin borobilduko da.

Printzipioz, desproporzionatutzat edo ezohikotzat joko dira onartutako eskaintzetako prezio guztien batezbesteko aritmetikoa baino % 5 baxuagoak diren eskaintzak. Eskaintza horiek aitortu ahal izateko, beharrezkoa izango da eskaintza horietako lizitzaile guztiei informazioa eskatzea eta, halaber, aholkularitza teknikoa eskatu beharko zaio dagokion zerbitzuari.

4.2.- PROPOSAMEN TEKNIKOAK:

49 PUNTU

Proposamen teknikoaren atalean, gutxienez, guztizko puntuazioaren % 50 lortu beharko du lizitzaileak (24,5 puntu), eskaintza ekonomikoaren irekiera-fasera pasatu ahal izateko.

Proposamen teknikoan, ideia gisa adierazitako irtenbidearen aurrerapen bat jasoko da, kontuan izanik lanen gutxi gorabeherako aurrekontua 14.920.000 €-koa dela (%13 GO, % 6 IE eta % 21 BEZ barne).

Honako alderdi hauek baloratu beharko dira:

4.2.1) ARKITEKTURA:

30 PUNTU.

Baldintza Tekniko Berezien Agirian adierazitako proiektu-irizpideetara egokitzea; Beharrianen Programari emandako irtenbidea; gauzatze-faseen antolaketa.

4.2.3) INSTALAZIOAK:

19 PUNTU.

Baldintza Tekniko Berezien Agirian adierazitako proiektu-irizpideetara egokitzea; Beharrianen Programari emandako irtenbidea; gauzatze-faseen antolaketa.

Adierazitako bi azpiatalen artean dagoen lotura kontuan izanik, azpiatal bakoitza modu globalean baloratu beharko da. Ez da puntuazio-banakatze handiagorik egingo, emaitzak galarazi egin baitezake eskaintzak ondo aztertzea.

Proposamen teknikoak Baldintza Tekniko Berezien Agirian eta III. eranskinean adierazitako baldintzetan oinarritu beharko du.

Bestalde, oinplano bidez eta eskematikoki definitu beharko da erabileren zonifikazioa (egoitza-unitateak; etxebizitza-unitate lagunduak; elkarte eta areto balioaniztunak; eremu komunak, etab.), gela-ereduak eta instalazioen banaketa-eskemak. Halaber, grafikoki adierazi beharko dira proposatutako lanak gauzatzeko faseak.

Azalera-koadro bat ere aurkeztu beharko da, egoitza- eta etxebizitza-unitateen azalera erabilgarriak zehaztuko dituen.

Ez da onartzen eskaintza bat baino gehiago edo eskaintza baten aldaerak edo alternatibak aurkeztea. Arau hori bete ezean, ez da onartuko lizitzaileak aurkeztutako proposamen bat ere.

Proposamen teknikoa DIN A4 formatuan koadernatuta entregatu beharko da, eta honako ezaugarri hauek izan beharko ditu.



Zati grafiko bat izan behar du (gehienez 10 DIN A3, DIN A4n tolestuta) eta idatzia (gehienez 10 DIN A4, orri bakoitza bi aldeetatik), lizitatuzaileak proiektua idazteko dituen ideiak adieraziz. Proiektuaren artxibo digitala ere aurkeztu beharko da, PDF formatuan. Debekatuta dago maketak aurkeztea.

4.3.- KALITATE-ZIURTAGIRIA:

1 PUNTU

Lizitatuzailearen bulegoko proiektu-idazketari eta lanen zuzendaritzari buruzko ISO 9000:2015 kalitate-ziurtagiria aurkezteak 1 puntuko balioa izango du.

4.4.- LAN-IRIZPIDEA

1 PUNTU

Lizitatuzailearen bulegoak zehazki baldintza-agiri honen helburuak betetzeko eta lanaldi osoan kontratatzen duen teknikari bakoitzeko –obra- edo zerbitzu-kontratu bidez– 0,5 puntu lortuko dira. Gehienez 1 puntu lortu ahal izango da irizpide hori aplikatuz.

ESKAITZEN BALORAZIOAREN GUZTIZKOA (4.1 + 4.2 + 4.3 + 4.4)

100 PUNTU

5.- EPEAK:

Lizitazioan (proposamen teknikoaren aurkezpena):

-1,5 hilabete

Esleipenaren ondoren (proiektuak idazteko etapa): etapa horrek **8 hilabeteko** epea izango du, honela banatuta:

- 2 hilabete Aurreproiektua eta Plan Berezia idazteko
- 2 hilabete Oinarrizko Proiektua eta Jarduera Proiektua idazteko (biak batera)
- 4 hilabete Gauzatze Proiektua eta haren azterketa tekniko osagarriak (Segurtasun eta Osasun Azterketa, Kalitate Kontrolerako Plana, Eraikuntza eta Eraipen Hondakinak Kudeatzeko Azterketa) idazteko (biak batera)

Esleipenaren ondoren (lanen zuzendaritza fakultatiboaren etapa): Lanen zuzendaritza fakultatiboaren etapa lanak **benetan gauzatu** arte luzatuko da, hasieran aurreikusitako epea beste bat izan arren, eta, lanen **berme-epea** amaitu ondoren, lanen zuzendaritza fakultatiboak eraikinaren egoerari buruzko Amaierako Txostena idazten duenean amaituko da.

6.- LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOAREN LABURPENA:

- Elkargokide-ziurtagiriak (3.1)
- F1 fitxa (3.2)
- I. ERANSKINA (3.2)
- II. ERANSKINA (3.2)
- Proposamen ekonomikoa (4.1)
- Proposamen teknikoa (4.2)
- Kalitate-ziurtagiria (4.3), hala badagokio
- Lan-irizpidea aplikatu izanaren egiaztagiria, hala badagokio

7.- KONTRATUAREN CPV KODEA:

Kontratuaren CPV kode hau proposatzen da: 71200000-0 (Arkitektura Zerbitzuak eta horiekin loturiko zerbitzuak (nagusia)).

8.- PLANOAK (.dwg) KONTRATATZAILEAREN PROFILEAN

Kontratatzailearen profilean, Baldintza Tekniko Berezien Agiriko eranskinetako (A.IV.1 eta A.IV.2) planoei dagozkien artxibo digitaletara sartzeko Internet-konexioa ("link" erakoa) adierazi beharko da.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

OHARRA: Proposamen honetan erabilitako fitxa eta eranskinen izendapenek/zenbakiek bat etorri beharko dute kontratuko Baldintza Administratibo Berezien Agirian erabilitakoekin.



F.1.

TEKNIKARIAREN ESPERIENTZIA PROFESIONALA EGIAZTATZEKO FITXA

PROIEKTUA (izenburua eta helburu duen erabileraren deskribapen laburra):

SUSTATZAILEA	
ERABILERA	
AZALERA ERAIKIA	
PROIEKTUAREN AURREKONTUA (PEM)	
PROIEKTUA IKUS-ONETSITAKO DATA eta/edo PROIEKTUA ONARTUTAKO DATA	
ERAIKUNTZA-LANEN HASIERA-DATA	
ERAIKUNTZA-LANEN AMAIERA-DATA	

TEKNIKARIAREN FUNTZIOA

FUNTZIOA:	jarri X bat	TEKNIKARIAREN IZENA:
ARKITEKTURA-PROIEKTUAREN EGILEA/K		
INSTALAZIOEN INGENIARITZA- PROIEKTUEN/PROIEKTUEN GARAPENAREN EGILEA/K		
LANEN ZUZENDARITZA		
LANAK GAUZATZEKO ZUZENDARITZA		
INSTALAZIOAK GAUZATZEKO ZUZENDARITZA		
SEGURTASUN- ETA OSASUN- KOORDINATZAILEA ERAIKUNTZA-LANEK IRAUN BITARTEAN		

EGIAZTAPENA (sustatzaileak bete beharrekoa)

IZENA	
NOR ORDEZKATZEN DUEN ENPRESAN DUEN KARGUA	
DATA ETA SUSTATZAILEAREN SINADURA	



- Datuak eta sustatzailearen sinadura falta badira, baliorik gabe geratuko da dokumentua.



I. ERANSKINA
DONOSTIAKO TXARA I ERAIKINA BERRITZEKO PROPOSATUTAKO TALDE TEKNIKOAREN
FUNTZIOEN ESLEIPENA

PROIEKTUAREN IDAZKETA-TALDEA:	
ARKITEKTOA (proiektuaren idazlea eta lanen zuzendaria)	
INGENIARI TEKNIKOA / INGENIARIA (proiektuan jasotako instalazioak garatzen dituena eta instalazio horiek gauzatzeko zuzendaria)	
Proiektuko instalazio guztiez eta horiek gauzatzear arduratzen den ingeniaria BAI <input type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/>	
Klimatizazioa	
Elektrizitatea	
Iturgintza eta saneamendua	
Telekomunikazioak	
Suteak	
Beste profesional batzuk	
Proiektu-faseko SEGURTASUN- ETA OSASUN-KOORDINATZAILEA, hala badagokio	
Proiektu-faseko BESTE TEKNIKARI BATZUK, hala badagokio	
ARKITEKTO TEKNIKOA (eraikuntza-lanak gauzatzeko zuzendaria)	
SEGURTASUN- ETA OSASUN-KOORDINATZAILEA (arkitekto tekniko/arkitektoa (Laneko Arriskuen Prebentziorako Goi-teknikaria)	
Zuzendaritza fakultatiboaren faseko BESTE TEKNIKARI BATZUK, hala badagokio	

- Talde teknikoko profesionalen laukiak pertsona fisikoen izen-abizenekin bete behar dira.
- Koadro honetan agertzen diren profesional guztien elkargokide-ziurtagiriak edo gaitasun-tituluak aurkeztu beharko dira.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

- Dokumentu honetan agertzen diren profesional guztiek lizitzaileekiko konpromiso espresua adierazi behar dute koadro honetan esleitutako funtzioak betetzeko, II. ERANKINEAN jasotako ereduaren arabera.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio



II. ERANSKINA

LIZITATZAILEAREN ETA I. ERANSKINEKO PROFESIONALEN ARTEKO KONPROMISO ESPRESUA

PROZEDURAREN LIZITATZAILEAK,

.....JAUNAK/ANDREAK (NAN zk.:)

ETA PROFESIONALAK,JAUNAK/ANDREAK (NAN
zk.:)

Bere egiten dute, baldin eta **DONOSTIAKO TXARA I ERAIKINA BERRITZEKO** lanetarako proiektu-
idazketako eta lanen zuzendaritzako kontratuen esleipendunak badira, taldean lan egiteko eta I.
ERANSKINEKO koadroan esleitutako funtzioak aurrera eramateko konpromisoa.

....., 2018ko.....k.....

Sinadura

